

ZENTSUAK ETA BIZTANLERIAREN ESTADISTIKAK: Euskal Herriko datuak homologatzea

## ***Industria euskal ekonomian funtsezko sektorea da oraindik ere, okupatuen %35,4rekin, birmoldaketa industrialaren ondoren pisua galdu duen arren***

2001eko datuen arabera, Euskal Herriko okupatuen %35,4 ari dira industrian lanean, Europako Batasuneko batez bestekorik handiena. Industria, beraz, oraindik ere funtsezko sektorea da euskal ekonomian, nahiz eta birmoldaketa industrialaren ondoren pisua galdu duen.

(Ikusi 1. mapa eta 2. grafikoa)

**Industriak jende gehien Gipuzkoan (%39,8) eta Araban (%39,0) enplegatzen du, eta gutxien, berriz, Lapurdin (%20,9).**

Herrialdez herrialde aztertuta, Bizkaian, birmoldaketa prozesu gogorra pairatu arren, lanean diharduten guztien %33,0 enplegatzen ditu industriak. Dena den, Bizkaian baino portzentaje handiagoan ari dira industrian gipuzkoarrak (%39,8), arabarrak (%39,0) eta Nafarroa Garaiko herritarrak (%38,3). Lau herrialde horietan, beraz, industriak oso pisu handia du, Europako estatu guztietan baino dezente handiagoa. Europako batez bestekoaren inguruan, industriari dagokionez betiere, Zuberoa dugu. Bertan, okupatuen ia herenek (%29,7) lan egiten dute industrian. Lapurdin eta Nafarroa Beherean, azkenik, bost landunetatik batek lan egiten du industrian (%20,9 eta %21,4, hurrenez hurren), Euskal Herriko herrialde industrialenetan ari direnen erdiek, gutxi gorabehera, eta Europako Batasuneko estatu guztietan baino gutxiagok.

Bizkaian, birmoldaketa prozesu gogorra pairatu arren, lanean diharduten guztien %33,0 enplegatzen ditu industriak; Araban, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian, hala ere, okupatu gehiago ari dira industrian

(Ikusi 3. mapa)

Udalerriz udalerrri ere ezberdintasun itzelak aurkitzen ditugu industriaren pisuari dagokionez; industrian lanean inor ez duten udalerrietatik hasi (Lakarra eta Ostankoa, besteak beste) eta industrian lanean gehiago handia ari den udalerrietara (Eskoriatza, Aizarnazabal, Etxebarre edo Ergoiena dira horren adibide argiak).

(Ikusi 4. mapa eta 5. taula)

Oro har, beraz, argi ikusten da sektore honen banaketa ez dela batere orekatua. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, salbuespenak salbuespen, ez dago ia udalerririk bere biztanleriaren gehiengoa industrian enplegatzen duenik. Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait zonalde zabaletan, aldiz, enplegatuen zati handiek dihardute industrian. Araban eta Nafarroa Garaian ere baditugu horrelako udalerriak, lurralde osoan sakabanatuta. Aipagarria da hiriburuetan, oro har, industrian ari den jende gutxi aurkitzen dela. Donibane Garazin eta Maulen, Nafarroa Behereko eta Zuberoako batez bestekoak aisa gaintzen badituzte ere, Bilbon, Donostian, Baionan, Iruñean eta Gasteizen txikiagoak dira industrian lan egiten dutenen batez bestekoak euren herrialdeetakoak baino.

Euskal hiriburuetan, oro har, industrian ari diren okupatuen batez bestekoa ez da oso handia: Bilbo, Donostia, Baiona, Iruñea eta Gasteiz beren herrialdekoaren azpitik ditugu

**70eko hamarkadako krisi ekonomikoaren ondoren, herrialde guztietan jaitsi da industriako enplegatuen portzentajea**

Industriak azken 25 urteetan izan duen bilakaera aztertzen badugu, enplegatzen dituen lagunen arabera betiere, argi ikusten da industriak euskal ekonomian zuen nagusitasuna galdu egin duela, zerbitzuen mesedetan. Horrela, 1975.

Industriak euskal ekonomian zuen nagusitasuna galdu egin du, zerbitzuen mesedetan

urtean, okupatuena %53,2 ari ziren industrian, eta egun, %35,4 ari dira.

(Ikusi 6. grafikoa)

Herrialde guztietan antzematen dira 70eko hamarkadako krisi ekonomikoaren aztarnak: herrialde guztietan jaitsi da industriako enpleguak zuen pisua. Jaitsiera hori, hala ere, handiagoa izan da lehenagotik oso industrializatuta zeuden herrialdeetan, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban bereziki.

Zehazki, Bizkaian 1975. urteko %57,0tik egungo %33,0ra pasatu da industrian ari direnen portzentajea; Gipuzkoan, %58,8tik %39,8ra; eta Araban, %60,9tik 39,0ra. Nafarroa Garaian industriak pisua galdu badu ere, neurri apalagoan galdu du: 1975. urteko %44,5etik egungo %38,3ra. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, 1975. urteko daturik ez badugu ere, industriaren pisua geroz eta urriagoa dela antzematen da. Hiru herrialde horietan, zenbait industria sortu baziren ere (zapatagintza, Hazparnen; espartingintza Maule aldean, Kontserbategiak Donibane-Ziburun...), ez zen gertatu beste herrialdeetako industrializazio prozesu sakonik.

(Ikusi 7. grafikoa)

Euskal Herrian hazkunde industrialia XIX. mendearen erdialdera hasi zen, eta poliki-poliki, nekazaritzako jarduera ordezkatuz joan zen, XX. mendean Euskal Herriko ekonomiaren ardatz bilakatu arte. Euskal Herriak, oro har, baina herrialde batzuek batez ere (Bizkaia eta Gipuzkoa lehenik, eta Araba eta Nafarroa Garaia gero), industrializazio prozesu handia jasan dute. Prozesu horrek, ekonomian ez ezik, gizarte zein kultura arloan ere izugarritzko eragina izan du, eta bestelako prozesu batzuk ere lagundu ditu, besteak beste, biztanle kopurua handitzea, hiritartzea, etorkin ugari etortzea, etxebizitza asko eraikitzea...

Hala ere, mende luze batez euskal ekonomiaren sektorerik garrantzitsuenak izan ondoren, 1970eko hamarkadaz geroztik indarra galduz joan da industria, eta birmoldaketa sakona pairatu du. Garaiko ekonomia krisiak industria astindu zuen gogorren eta, ondorioz, herrialde industrialenek (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa Garaia) jasan zituzten birmoldaketa horren ondorio garrantzenak.

Industrian garrantzi handiena izan duen arloa metalurgia izan da (burdingintza, altzairugintza...), eta gaur egun, birmoldaketaren ondotik, garrantzitsua den arren, bestelako jarduerak ere indartzen ari dira. Eraikuntza sektoreak, esaterako, azken hamarkadan leku handia hartu du, nahiz eta ez izan 1960ko hamarkadan bezainbestekoa. Bestelako jarduerak ere aurrera joan dira Euskal Herriaren luze-zabalean: Ontzigintza (Bilboko itsasadarraren ezker aldean), makina-erreminta, armagintza (Eibar, Sorluze), papergintza (Tolosalde, Leitza, Allo, Zangoza, Errenteria), petrokimika (Muskiz), elektronikak (Bilbo, Arrasate, Baiona, Iruñea, Mugerre), aeronautika (Angelu-Miarritze, Gasteiz), automobilgintza (Iruñea, Gasteiz), kontserbagintza (Nafarroako Erribera, Arabako Erribera, euskal kostaldea) eta azkenaldian teknologia berriak ere bai (Zamudio, Miramon).


Industria, batez ere, zenbait hiri eta eskualdetan garatu da. Bizkaian, Bilboko itsasadarraren ezker aldean eta Durangaldean sustraitu da batez ere. Gipuzkoan, ibai nagusiek zeharkatzen dituzten eskualdeetan; hau da, Deba, Urola, Oria eta Urumea ibaien inguruan. Araban eta Nafarroa Garaian, berriz, hiriburuen eta zenbait hiri handiren inguruan sortu da industria, eta eskualde jakin batzuetan (Sakana, Agurain, Estellerria eta Tutera). Lapurdin eta Zuberoan garatu den industria apurra ere hiriburuen inguruan egin da.

Industrializazio prozesuak, euskal ekonomia ez ezik, gizarte eta kultura ere eraldatu zituen, eta azken hamarkadetan ekonomia arloan pisua galdu arren, hainbat arlotan eragin zituen aldaketek indarrean dira.

Metalurgia izan zen euskal industriaren eragile, baina azken hamarkadetan birmoldaketa sakona pairatu du, eta horrek milaka euskal langileri egin die kalte, eta sektoreak indarra galtzea ekarri du.

**Taula eta grafikoak**


**1. Industria sektorean enplegatutako biztanleria. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001 (%)**



**Iturria:** *Euskal Herriko Datu Talaia*. Biztanleria zentsuak, Biztanleriaren Estadistikak eta Biztanleriaren datuak (INE, INSEE eta EUROSTAT)

**\*Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren datuak 1999koak dira. Europako Batasuneko herrialdeetako datuak 2000. urtekoak dira; beraz, ez da biltzen Europako Batasunean 2004. urtean sartu ziren 10 estatuen daturik.


**2. Industria sektorean enplegatutako biztanleria. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001 (%)**



**Iturria:** *Euskal Herriko Datu Talaia*. Biztanleria zentsuak, Biztanleriaren Estatistikak eta Biztanleriaren datuak (INE, INSEE eta EUROSTAT)


**\*Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren datuak 1999koak dira. Europako Batasuneko herrialdeetako datuak 2000. urtekoak dira; beraz, ez da biltzen Europako Batasunean 2004. urtean sartu ziren 10 estatuen datuak.

**3. Industria sektorean enplegatutako biztanleria, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)**



**Iturria:** *Euskal Herriko Datu Talaia*. Biztanleriaren zentsuak eta Biztanleria Estatistikak (INE, INSEE)  
\*Oharra: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

4. Industria sektorean enplegatutako biztanleria, udalerrika. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: **Euskal Herriko Datu Talaia**. Biztanleriaren zentsuak eta Biztanleria Estatistikak (INE, INSEE)  
\*Oharra: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

**5. Industria sektorean enplegatutako biztanleria (udalerrri esanguratsuak). Euskal Herria, 2001 (%)**

	Hiriburua		Industriak pisu gehien		Industriak pisu gutxien		25 udalerrri handien artean industriak pisu gehien		25 udalerrri handien artean industriak pisu gutxien	
	Udalerrria	%	Udalerrria	%	Udalerrria	%	Udalerrria	%	Udalerrria	%
<b>EUSKAL HERRIA</b>	Euskal Herria	35,4	Eskoriatza (G)	71,2	Lakarra (NB)	0,0	Arrasate (G)	60,3	Biarritz/Miarritze (L)	16,2
			Aizarnazabal (G)	69,4	Bustintze-Iriberrri (NB)	0,0	Eibar (G)	50,3	Baiona (L)	17,7
			Antzuola (G)	68,1	Gamarte (NB)	0,0	Laudio (A)	48,0	Angelu (L)	18,8
			Etxebarre (Z)	66,7	Ostankoa (NB)	0,0	Durango (B)	44,9	Getxo (B)	22,3
			Ergoiena (NG)	66,7	Getxeluberri (NG)	0,0	Zarautz (G)	42,6	Donostia (G)	22,4
			Aretxabaleta (G)	66,0	Ozaze-Zühara (Z)	0,0				
<b>Araba</b>	Gasteiz	38,3	Villabuena de Alava	55,0	Leza	11,3	Aramaio	52,5	Eltziego	16,9
			Aramaio	52,5	Navaridas	14,5	Oion	51,6	Zuia	25,9
			Oion	51,6	Bilar	15,3	Agurain	50,1	Trebiñu	27,1
			Agurain	50,1	Eltziego	16,9	Legutiano	49,3	Bastida	28,8
			Legutiano	49,3	Iruraitz-Gauna	19,8	Amurrio	49,1	Guardia (Biasteri)	29,8
<b>Bizkaia</b>	Bilbo	25,0	Ermua	62,2	Fruiz	21,2	Ermua	62,2	Getxo	22,3
			Markin-Etxebarria	59,0	Lemoiz	21,4	Elorrio	52,5	Leioa	28,4
			Zaldibar	58,9	Loiu	22,1	Durango	44,9	Sopela	28,7
			Abadiño	56,6	Getxo	22,3	Zornotza	44,3	Bermeo	31,1
			Berriz	55,5	Elantxobe	22,8	Ortuella	41,1	Lekeitio	34,0
<b>Gipuzkoa</b>	Donostia	22,4	Eskoriatza	71,2	Orendain	25,0	Aretxabaleta	66,0	Hondarribia	26,1
			Aizarnazabal	69,4	Hondarribia	26,1	Oñati	61,8	Pasaia	32,1
			Antzuola	68,1	Arama	30,5	Arrasate	60,3	Irun	32,4
			Aretxabaleta	66,0	Orexa	30,8	Azkoitia	59,6	Oiartzun	34,6
			Soraluze	63,9	Pasaia	32,1	Zumarraga	59,1	Hernani	36,8
<b>Lapurdi</b>	Baiona	17,7	Ahetze	32,6	Hendaia	15,8	Lehunteze	32,2	Hendaia	15,8
			Lehunteze	32,2	Biarritz/Miarritze	16,2	Beskoitze	29,8	Biarritz/Miarritze	16,2
			Lekuine	31,0	Luhuso	17,0	Ezpeleta	29,7	Milafanga	18,5
			Beskoitze	29,8	Milafanga	18,5	Hazparne	29,6	Angelu	18,8
			Ezpeleta	29,7	Angelu	18,8	Urketa	28,1	Donibane Lohitzune	20,1
<b>Nafarroa Beherea</b>	Donibane Garazi	22,7	Akamarre	42,1	Lakarra	0,0	Akamarre	42,1	Ezterenzubi	10,9
			Aiherra	38,6	Bustintze-Iriberrri	0,0	Aiherra	38,6	Banka	12,1
			Isturitze	36,7	Gamarte	0,0	Oragarre	28,1	Arrosa	16,2
			Gabadi	36,4	Ostankoa	0,0	Iholdi	27,9	Behaskane-Laphizketa	16,7
			Amorotze-Zokotze	33,3	Urepele	2,3	Bastida	27,4	Donazaharre	17,2
<b>Nafarroa Garaia</b>	Iruñea	30,9	Ergoiena	66,7	Getxeluberri	0,0	Azkoien	61,2	Egues	26,0
			Iturmendi	62,5	Abaurregaina	13,0	Corella	56,5	Aranguren	28,1
			Lakuntza	61,9	Oloritz	14,5	Viana	55,4	Iruñea	30,9
			Azkoien	61,2	Zuñiga	14,9	Cintruenigo	55,2	Zizur Nagusia	30,9
			Bakaiku	60,6	Urdazubi	16,2	Altsasu	55,1	Baztan	33,8
<b>Zuberoa</b>	Maule-Lextarre	38,6	Etxebarre	66,7	Ozaze-Zühara	0,0	Sarrikotapea	46,2	Lohitzüne-Oihergi	5,0
			Ürrüstoi-Larrabile	50,0	Lohitzüne-Oihergi	5,0	Idauze-Mendi	43,3	Muskildi	8,0
			Sarrikotapea	46,2	Ainharbe	6,3	Garindaine	38,1	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	9,1
			Idauze-Mendi	43,3	Muskildi	8,0	Ezpeize-Ündüreine	34,9	Domintxaine-Berroeta	13,9
			Garindaine	38,1	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	9,1	Bildoze-Onizepea	33,7	Larraine	16,7


**Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia.** Biztanleriaren zentsuak eta Biztanleria Estatistikak (INE, INSEE)  
\*Oharra: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

## 6. Industria sektorean enplegatutako biztanleriaren bilakaera. Euskal Herria, 1975-2001 (%)

**Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia.**

Biztanleriaren zentsuak, Biztanle Erroldak eta Biztanleria Estatistikak (EUSTAT, IEN, INE eta INSEE)

\***Oharra:** 1975. urterako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako datuetan sailkatu gabeak kanpoan utzi ditugu, eta datuek ez dute ematen Trebiñuren, Argantzonen eta Villaverde Turtziozen berri. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan urte horretarako ez dugu herrialdekako daturik. 1991. urterako, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1990. urtekoak dira, eta 2001. urterako, 1999koak.




## 7. Industria sektorean enplegatutako biztanleriaren bilakaera, herrialdeka. Euskal Herria, 1975-2001 (%)

**Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia.**

Biztanleriaren zentsuak, Biztanle Erroldak eta Biztanleria Estatistikak (EUSTAT, IEN, INE eta INSEE)

\***Oharra:** 1975. urterako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako datuetan sailkatu gabeak kanpoan utzi ditugu, eta datuek ez dute ematen Trebiñuren, Argantzonen eta Villaverde Turtziozen berri. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan urte horretarako ez dugu herrialdekako daturik. 1991. urterako, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1990. urtekoak dira, eta 2001. urterako, 1999koak.





- Prentsa ohar hau egiteko erabili ditugun datu guztiak helbide honetan aurkituko dituzu:

**[WWW.datutalaia.net](http://WWW.datutalaia.net)**

- **Datu Talaia, Gaindegiako** *Estatistika Sailak*, Espainiako eta Frantziako estatueta azken zentsuetan (2001 eta 1999ekoak, hurrenez hurren) oinarrituta egin dituen homologazio estatistikoen emaitza dira datu horiek. Lehen aldiz, Euskal Herri osoko ikuspegia eskaintzen da. Euskal Herriko datuak lortzeko egin ditugun prozeduren berri jakiteko, ikus web orriko "Iturriak eta metodologia oharra" txostena.
- **Jatorrizko datuak:** Biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren estatistikak (EUSTAT, INE eta INSEE). Europako estatueta datuak: EUROSTAT.

**Argibide gehiagorako edo  
Prentsa Ohar zaharrak hiru hizkuntzetan kontsultatzeko:**

Euskal Herriko Datu Talaia  
[www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net)